

Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko azaroaren 10ean egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakiak hartu zituen.

.- Kaio Diseinu eta Barne Apainketak S.L.: Langabetuak kontratzeagatik diru-laguntza eskaera.

Kaio Diseinu eta Barne Apainketak S.L enpresak langabetu bat kontratatu zuen 6 hilabeterako eta Zorione Urzelai Elorzak enpresaren izenean udalaren langabetuak kontratatzekeo laguntza eskaera egin zuen 2016ko martxoaren 14an.

Kaio Diseinu eta Barne Apainketak S.L enpresak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, diru-laguntzaren xede den kontratua kasu honetan 2015eko urriaren 15ean hasi zela egiaztatu da eta "Pertsona Langabetuak Kontratatzekeo Laguntzen" oinarrietako 4. artikulua araberak (kontratuen baldintzak), kontratuak 2016ko ekainaren 16a eta 2017ko maiatzaren 31 bitartean hasi behar dute.

Gaia aztertu ondoren eta Sozioekonomia Batzordearen irizpena kontuan hartuz, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du Kao Diseinu eta Barne Apainketak S.L enpresari ez ematea "Pertsona Langabetuak Kontratatzekeo Laguntza", oinarrietako 4. artikuluan ezartzen dena ez duelako betetzen.

.- Nemesio Zubia S.A.: Langabetuak kontratatzeagatik diru-laguntza eskaera.

Nemesio Zubia S.A. enpresak langabetu bat kontratatu zuen 10 hilabeterako eta Michel Ariasek enpresaren izenean udalaren langabetuak kontratatzekeo laguntza eskaera egin zuen 2016ko martxoaren 9an.

Nemesio Zubia S.A. enpresak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, diru-laguntzaren xede den kontratua kasu honetan 2015eko irailaren 9an hasi zela egiaztatu da eta "Pertsona Langabetuak Kontratatzekeo Laguntzen" oinarrietako 4. artikulua araberak (kontratuen baldintzak), kontratuak 2016ko ekainaren 16a eta 2017ko maiatzaren 31 bitartean hasi behar dute.

Gaia aztertu ondoren eta Sozioekonomia Batzordearen irizpena kontuan hartuz, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du Nemesio Zubia S.A enpresari ez ematea "Pertsona Langabetuak Kontratatzekeo Laguntza", oinarrietako 4. artikuluan ezartzen dena ez duelako betetzen.

.- Ignacio Uriarte Alzola: Langabetuak kontratatzeagatik diru-laguntza eskaera.

Ignacio Uriarte Alzola-k langabetu bat kontratatu zuen 6 hilabeterako eta udalaren langabetuak kontratatzekeo laguntza eskaera egin zuen 2016ko martxoaren 10ean.

Laguntza eskaera egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztu ez duen arren eskaera orrian kontratua 2015. urtean egin zela jasotzen da eta "Pertsona Langabetuak Kontratatzekeo Laguntzen" oinarrietako 4. artikulua araberak

(kontratuen baldintzak), kontratuak 2016ko ekainaren 16a eta 2017ko maiatzaren 31 bitartean hasi behar dute.

Gaia aztertu ondoren eta Sozioekonomia Batzordearen irizpena kontuan hartuz, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du Ignacio Uriarte Alzolari ez ematea "Pertsona Langabetuak Kontratatzeko Laguntza", oinarrietako 4. artikuluan ezartzen dena ez duelako betetzen.

Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko martxoaren 9an egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakiak hartu zituen.

.- Calibix S.L.: Pertsona langabetuak kontratatzekeo laguntza eskaera.

Calibix S.L.. enpresak 2016ko uztailaren 21ean langabetu bat kontratatu zuen, eta Pertsona langabetuak kontratatzekeo Udalaren laguntza eskatu du.

Kontratuaren zehaztasunei dagokionez, kontraturiko pertsona gizonezkoa da eta Oñatin erroldatuta dago gutxienez 6 hilabeteko antzinasunarekin. Kontraturen iraupena mugagabea da, eta jardunaldi partzialekoa; %50ekoa hain zuzen ere.

Diru-laguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiri guztiak aurkeztu ditu eta laguntza jasotzekeo ezartzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, oinarrien 5. artikuluan zehaztutako laguntzen zenbatekoen arabera 500€-ko diru-laguntza dagokio Calibix S.L. enpresari

Gaia aztertu ondoren eta Ogasun zein Sozioekonomia Batzordeen irizpenak aldekoak direla kontuan hartuz, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du Calibix S.L enpresari 500 €-ko diru-laguntza ematea kontratazio horrengatik.

Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 12an egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakiak hartu zituen.

.- Montajes Mecánicos Leniz S.L.: Langabetuak kontratatzekeo diru-laguntza.

Oscar Martinez Arenaza-k, Montajes Mecánicos Leniz S.L. enpresaren izenean, 2016ko irailaren 1ean langabezia egoeran zeuden 2 pertsona kontratatu zituen, eta Pertsona langabetuak kontratatzekeo Udalaren laguntza eskatu du.

Kontratuari zehaztasunei dagokionez, kontraturiko pertsonetako bat gizonezkoa da eta Oñatin erroldatuta dago gutxienez 6 hilabeteko antzinasunarekin. Kontraturen iraupena 6 hilabetekoa eta jardunaldi osokoa izan da. Ondoren kontratu mugagabe bihurtu delarik.

Beste kontratuari dagokionez, kontraturiko pertsona emakumezkoa da eta Oñatin erroldatuta dago gutxienez 6 hilabeteko antzinasunarekin. Kasu honetan ere, kontraturen iraupena 6 hilabetekoa eta jardunaldi osokoa izan da, eta ondoren kontratu mugagabe bihurtu da. Horretaz gain, egiaztatu da baita kontraturiko pertsona epe luzeko langabezia egoera batetik zetorrela, hau da kontratatu aurreko azken 18 hilabetetatik gutxienez 12 langabezian eman dituela.

Beraz, diru-laguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiri guztiak aurkeztu direla kontuan hartuta eta laguntza jasotzeko ezartzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatuta, "Pertsona langabetuak kontratatzeke Udalaren laguntza" oinarrien 5. artikuluan zehaztutakoaren arabera Montajes Mecánicos Leniz S.L. dagokion laguntza 2.690€koa da.

Gaia aztertu ondoren eta Ogasun zein Sozioekonomia Batzordeen irizpenak aldekoak direla kontuan hartuz, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du Montajes Mecánicos Leniz S.L enpresari 2.690 €-ko diru-laguntza ematea kontratazio horiengatik.